

Xuxen

ANJEL LERTXUNDI

Gaztetxo bat ipuin bat idazten ordenagai-luan. *Xuxen* aktibatuta dauka, eta, hitzen bat gorriz ikusi orduko, gaztetxoa beste hitz baten bila hasten da. Sistema aparta ortografia, sinonimoak eta antzekoak ikasteko. Baita tranpak egiteko ere.

Halako batean, urliak eta sandiak *konpontxo* egin zuten idatzi du. *Konpontxo* hori oso etxekoa du, eta natural-natural atera zaio. Baina Xuxenek, ez baita hain etxekoa, gorriz azpimarratu dio *konpontxo*. Gaztetxoak zer egingo du? Apustuak onartzen dira.

«*Xuxen*-ekin ez dago literatura egiterik» etorri zait burua.

Ez nabil, ordea, *Xuxen*-ekin zuzen: ondo idaztea xuxen idaztearen morroi dela erakusten duen sistema oso baten praktika da arazoa. Inork esan ote dio gaztetxolari hizkuntza baten zailtasunak ulertzeko eta eramaten laguntzeko tresna dela gramatika, eta ez, galga eta behaztopak jarri-rik, hizkuntzaren jarioa astuntzeko?